

Erf: ELA errekurtsua RPTaren argitalpena 2017  
Espediente zk.: 2017/06

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

ELA sindikatuak, 2017. Urteko Lanpostuen Zerrendaren argitalpenaren aurka aurkeztutako Birjarpen errekurtsua.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Langileria sailak.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Lehenengoa: 2017ko martxoaren 8an, udal Osoko Bilkureak, besteak beste, Bermeoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2017. urterako Lanpostuen Zerrendeak onartu ebazan.

Bigarrena: 2017ko maiatzaren 4an, ELA sindikatuak, aitaturako erabagien aurkako Birjarpen Errekurtsua aurkeztu eban.

Hirugarrena: 2017ko maiatzaren 31n, aitaturako 2017. Urterako Lanpostuen Zerrendeak argitaratu ziran Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Laugarrena: 2017ko ekainaren 30ean, ELA sindikatuak, maiatzaren 31ko argitalpenaren aurkako Birjarpen Errekurtsua aurkeztu eban.

#### **b) Oinarri juridikoak**

Lehenengoa: Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legeak, bere 112. artikuluan honako dino: "1. Contra las resoluciones y los actos de trámite, si estos últimos deciden directa o indirectamente el fondo del asunto,

determinan la imposibilidad de continuar el procedimiento, producen indefensión o perjuicio irreparable a derechos e intereses legítimos, podrán interponerse por los interesados los recursos de alzada y potestativo de reposición, que cabrá fundar en cualquiera de los motivos de nulidad o anulabilidad previstos en los artículos 47 y 48 de esta Ley.

La oposición a los restantes actos de trámite podrá alegarse por los interesados para su consideración en la resolución que ponga fin al procedimiento”.

Lanpostuen Zerrenden argitalpena izapide hutsezko egintza bat da eta ez erabagi bat, eta ez dau gaiaren muina erabagitzen, erabagia bera ezagutarazo eta jendaurrean ipini baizik. Hori horrela, ezin da bere aurka errekurtsorik aurkeztu, erabagi beraren kontra aurkeztu behar dalako.

Kasu honetan, ELA sindikatuak erabagi beraren aurka ipini eban Birjarpen Errekurtsoa, aurrekarietan agertzen dan moduan eta, erabagi beraren aurka ezin dira errekurtso bi ipini batera.

Bigarrena: 39/2015 Legeak, bere 116. artikuluan honakoa dino: “Serán causas de inadmisión las siguientes: (...) c) Tratarse de un acto no susceptible de recurso”.

Ondorioz, argitalpen bera ez danez errekurragarria, errekurtsoa izapidera ez onartzeko kausa izango litzateke.

Hori dala eta, ELA sindikatuak, 2017. Urteko Lanpostuen Zerrendaren argitalpenaren aurka aurkeztutako Birjarpen errekurtsoa izapidera ez onartzea proposatzen da.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2017ko uztailaren 7an.

Karmele Muñoa Arrigain  
Behin-behineko Idazkaria